

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Asteartetik desargetuta egon diren bi mendizale bizkaitarren gorpuak Anieren lepoan aurkitu zituzte

*Helikoptero batean zihoazenek ikusi dituzte gorpuak 12:00ak pasatxoan; mendizaleek ez dute izan istripurik*

Viernes, 15 de julio de 2011

Nafarroako Larrialdi Agentziak Pirinioetan, Anie tontorraren inguruan, koordinatu duen dispositiboan, bikote bizkaitar baten bila aritua joan den asteartetik. Guardia Zibilak egin du atestatua eta, esan duenaren arabera, 12:00ak pasatxotan gorpuak aurkitu dituzte. 37 urteko NLV emakumea eta 40 urteko JAS gizona dira, Portugaleteko (Bizkaia) bizilagunak biak.



Larra-Belagua inguruko mapa, Anie tontorra zehaztuta

Erreskate taldea osatu duen Frantziako Poliziaren helikoptero batetik ikusi dituzte gorpuak Anieren lepoan. Hasieran, amilduta hil ahal izan direla esan arren, erreskate taldeak bertara hurbildu direnean egiaztatu dute ez zutela istripurik izan.

Beste bi helikopterok gorpuak jaso eta Ernazen lepoan dagoen aparkalekura eraman dituzte; bata Nafarroako Gobernuarena izan da eta Guardia Zibilaren Mendiko Erreskate Talde Bereziko (GREIM) agenteak joan dira, eta bestea Jacako GREIMena. Ernazen lepoan dago Nafarroako Larrialdi Agentziaren Aginte Postu Aurreratua ere. Han, hiletan furgoi batean sartu dituzte gorpuak, eta handik Medikuntza Legaleko Nafarroako Institutura eraman dituzte autopsia egiteko.

Nafarroako Larrialdi Agentziak, atzo, osteguna, Erronkariko Pirinioetan bi pertsona bilatzeko lanak hasi zituen. Bizkaiko 40 urteko gizon bat eta 37 urteko emakume bat izan ziren, eta asteartetik desargetuta zeuden. Bikotea Izabako ostatutik atera zen, antza denez, Anie tontorra egiteko, baina ez ziren itzuli. Asteazkenean, gela uztea aurreikusita zuten egunean, oraindik ere ez ziren agertu. Gauzak horrela, ostatuko jabeek familiako kideei jakinarazi zieten eta, horiek, SOS Nafarroa 112ra deitu zuten. Mendizaleen autoa Ernazen lepoan aurkitu zuten ostegunean, mugan, Aniera igotzeko ibilbide ohikoaren hasierako gunean.

Aginte Postu Aurreratuan basea duen laguntza talde bat gau osoan

zehar adi egon da galdutakoen edozein seinale antzemateko.

Eguraldiak hobera egin duenean, lau helikoptero ingurua gainera ikusten ibili dira. Bi Nafarroako Gobernuarenak izan dira, bat Frantziako Poliziarena eta beste bat Huescan basea duen Guardia Zibilaren GREIMena. Lurrean, Izabako, Nabaskozeko parkeko eta Olorongo suhiltzaile bolondresen eta foruzainen taldera batu dira Nafarroako Gurutzeko Gorriko eta DYAKo bolondresak. Nafarroako Larrialdi Agentziako hezitako txakurren unitateak ere bilaketan parte hartu du.